



DONOSTIANN

ENPRESA BERRIAK SORTZEA BULTZATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK, DONOSTIA UP! 2017 EKONOMIA BULTZATZEKO PLANA.

“Donostia SMART batean berrikuntzan eta talentuaren garapenean oinarritutako etorkizun baterako gaitasunak eraikitzen” deritzon Donostia UP! 2017 Ekonomia Bultzatzeko Plan berritik eratorritako jarduketako ildoek hirian enpresa berriak sortzea bultzatzera bideratutako zerbitzuak eta laguntza-programak jasotzen dituzte.

Plan berria proposatzen da hirirako funtsezkoak diren hiru plano edo esparrutan esku-hartzearen logikatik: Pertsonak, Enpresak eta Lurraldea.

Plan horren helburuak izan behar du berrikuntza bultzatzea funtsezko balio gisa, enpresek horren gainean planteatzen diren jarduketak.

Hain zuzen ere, enplegua sortzeko eta garapenerako funtsezko tresna gisa enpresa berriak sortzea aurkezten da berrikuntzaren, lehiakortasunaren, sustapen ekonomikoaren eta gure ingurunean kohesio sozialaren aldeko apustuaren estrategiaren elementu gisa.

Testuinguru horretan aurkezten da Donostian enpresa berriak sortzea bultzatzeko programa berri hau.

Laguntza orokorren programa bat da eta, enpresa berritzaileak eta oinarri teknologikoko enpresak sortzeko Ekin+ programarekin batera, hirian berrikuntza sustatzearen aldeko apustuan laguntzen du.

Donostia UP 2016 Ekonomia Suspertzeko aurreko Planean, 220 enpresak jaso zuen enpresak sortzeko laguntza-ildo honen babesa; horrela, bada, lortutako emaitzak argi uzten du norabide horretan jarraitu beharra dagoela.

Testuinguru horretan, Donostiako Sustapenak laguntzen ildo hori sustatuko du 2017an, errealitate ekonomia ezagutzen duela eta badakielako enpresa berriak sortzen laguntzen jarraitu beharra dagoela.



1. ARTIKULUA. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da norberaren kontura lanpostu berrien sorrera babestea, honako honen bidez:

- a) Enpresa berriak sortzea, oro har.
- b) Berrikuntza-irizpideetan oinarritutako enpresa berriak sortzea eta hiriari balio erantsia ematen diotenak, Donostiako Sustapenak tokiko sare ekonomikorako antolatzen dituen sektore estrategikoak garatzeko egindako zeharkako bultzada-estrategiarekin eta apustuarekin bat etorritik.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak oinarri hauek araututako laguntzetarako ondorengo zenbatekoa bideratuko du: 300.000 euro.

Zenbateko hori aldatu ahalko da, baldin eta Donostiako Sustapenak hala erabakitzen badu.

3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Pertsona onuraduna izango da hura ematearen funtseko jarduera egin behar duen edo hura ematea zilegiztatzen duen egoeran dagoen pertsona, edo hura ematea zilegiztatzen duen egoeran dagoena, baldin eta Oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen baditu eta, berariaz, laguntza-mota bakoitzari dagozkionak.

Laguntzen onuradunak izan ahalko dira, Oinarri hauetan sendotutako baldintzetan dauden honako hauek: pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, bai eta aurrekoen nortasunik ez duten taldeak ere, antolamendu juridikoaren arabera baliozko eran eraturakoak. Urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoaren, 14. artikuluko baldintzetan zehaztutako ondare-sozietateak baztertzen dira.

Oinarri hauetan beharrezko baldintzak zehaztuko dira dagozkien laguntzak eskatzeko, bai eta haiek egiaztatzeko era ere; hala, Diru-laguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan (aurrerantzean,



DLO) ezarritakoa bete beharko da, nolahi ere, eta ondorio horietarako berariaz aplikaziozkotzat jotzen dena.

Laguntza ezingo zaie eman zerga-betebeharrak edota Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak (indarrean dauden xedapenek ezarritakoak) egunean ez dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei.

Laguntza ezingo zaie eman ebazpen irmo baten bidez zehatuak izan diren pertsona fisiko edo juridikoei, hau da, diru-laguntzak edo laguntzak lortzeko aukera kendu zaienei, edo horretarako gaikuntza ematen ez zaien lege-debekuren batean daudenei, sexu-diskriminazioari lotutakoak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzkoaren, seigarren xedapenean agindutakoaren arabera.

Laguntza ezingo zaie eman Donostiako Udalarekin edota Donostiako Sustapenarekin zorrak dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

Laguntza ezingo zaie eman aurrez emandako laguntzak itzultzeke (guztiz edo zati batean) duten pertsona onuradunei, itzultzeke dagoen diru-kopurua bueltatu dela egiaztatzen ez den bitartean.

4. ARTIKULUA. DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO PERTSONA ONURADUNEN BALDINTZAK

Deialdian parte hartzeko pertsona onuradunek bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

- a) Laguntzaren xede den jardueraren egoitza fiskala Donostian izatea. Pertsona fisikoen edo sozietate zibilen kasuan, beste egoitza fiskal bat onartuko da, baldin eta, Sustapenaren iritziz, behar besteko ebidentziarik badago jarduera Donostiako establezimendu batean egiten dela.
- b) Pertsona juridikoak badira, ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete ditzatela:
 1. Beraien aktiboak 10 milioi euro ez gainditzea, edo beraien eragiketen bolumenak 10 milioi euro ez gainditzea, Euskal Autonomia Erkidegoarekin dagoen Kontzertu Ekonomikoan zehazten den moduan.
 2. Plantillaren batez bestekoa 50 lanpostura ez iristea. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko, lanaldi osoko langileak hartuko dira kontuan urteko. Lanaldi partzialeko langileen kasuan, zenbaketa lan egindako ordu-kopuruarekin proportzionala izango da.



3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka 100eko 25eko partaidetza ez izatea.

Erakundeak sozietate-talde baten barnean dagoenean, Merkataritza Kodeko 42. artikulua araberako, 1. eta 2. zenbakietan eta aurrekoetan adierazitako magnitudeak talde horren barnean dauden erakundeei buruzkoak izango dira.

Aktibo guztia eta eragiketa-bolumena zenbatzeko, egokiak diren desagertzeak kontuan hartuko dira Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta haren garapen arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Aipatutakoa alde batera utzi gabe, ez dira pertsona onuradunak izango:

- Irabazi-asmorik gabeko fundazioak eta elkarteak.
- Honako hauekiko lotura edo %25etik gorako partaidetza duten erakundeak: Sektore publikoaren barneko erakundeak, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duenari buruzkoaren, 3. artikuluaekin bat etorritik; irabazi asmorik gabeko Fundazioek eta Elkarteek, ondare-elkarteek eta/edo Elkargo Profesionalek.

c) Enpresak sortzeko oro har dauden laguntza-eskaerei dagokienez (1.a artikulua) eta berrikuntza-irizpideetan oinarritutako enpresa berriak sortzeko dagokienez (1.b artikulua), pertsona onuradunek honako hauek bete beharko dituzte, gainera:

1. Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren hasieran emandako alta, edo zentsu-aitorpenean alta ematea egokitzen denean, 2017ko urtarrilaren 1aren eta abenduaren 31ren artean egitea, bi datak barne.
2. Ekonomia Jardueren gaineko Zergan jardura berean edo antzekoan ez matrikulatzea, laguntza eskatzen duten enpresa sortu aurretiko sei hilabeteetan.
3. Bazkideetako batek 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko epean Gizarte Segurantzaren alta ematea (Autonomoen Araubidean edo baliokidea den beste batean).
4. Bazkideen artean batek gutxienez parte hartu izana Donostiako Sustapenaren zerbitzuak (pertsona ekintzaileei babesa emateko zerbitzua) etengabe eskaintzen dituen prestakuntza saioetan. "Hasierako Pack-aren" barnean astebetean egin beharreko 14



saioak dira (28 ordu, guztira), eta garrantzitsutzat jotzen direnak enpresa bat sortzeko prozesuaren barnean.

Nolanahi ere, Donostiako Sustapenak prestakuntza-saio horiek egitetik salbuesten dela adierazi ahalko du, baldin eta garatu beharreko negozio-ereduaren gainean behar besteko ezagutza egiaztatu dela irizten badu.

d) Berrikuntza-irizpideetan (1.b artikulua) oinarritutako enpresa berriak sortzeko laguntza-eskaerei dagokionez, eskatzaileak enpresa berritzailearen baldintza bete beharko du oinarri hauen 9. artikuluan agindutako baldintzen arabera.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Laguntzen zenbatekoa izango da:

a) 1.a) artikuluan tipifikatutako enpresa berrien sorkuntza:

1.200 euroetako laguntza lehen bazkidearentzat eta 500 euroetako laguntza, bigarrenarentzat eta hurrengo bazkidearentzat. Nolanahi ere, Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubidean alta eman izana justifikatu beharko da (edo araubide baliokidea)

Bazkide bakoitzaren laguntza honek %20ko igoera izan dezake, lan merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonen alta berriak emanez gero. Honako hauek aipatutako izaera edukiko dute (kolektiboak ez dira metagarriak):

- Emakumeak
- 30 urtetik beherako gazteak
- 45 urtetik gorako pertsonak
- Enplegu zerbitzu publiko batean, lan-eskatzaile gisa, izena emandako pertsonak, jardueraren alta data baino lehen, langile gisa, ez badira ez alta egoeran, ezta alta egoeraren antzekoan egon, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean, ezta Langile Autonomoen Araubide Berezian ere, gutxienez, alta aurreko 12 hilabetez.
- Minusbalotasuna duten pertsonak (%33 edo gehiago).
- Etorkinak, atzerritarrei buruzko legerari dagokionez
- Gizarte baztertzearen egoeran dauden beste pertsonak.



Adierazitako kolektiboetako batean parte hartzea egiaztatzeko ondorioetarako, enpresaren alta data erreferentzia hartuko da.

Aurreko laguntza guztiak, igoerak barne, **gehienez 4.000 eurotan izango dira enpresa bakoitzeko.**

b) 1.b) artikuluan tipifikatutako enpresa berrien sorkuntza:

2.000 euroetako laguntza lehenengo bazkidearentzat eta **1.000 eurotako** laguntza, bigarren eta hurrengo bazkiderentzat. Nolanahi ere, Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubidean (edo araubide bateragarrian) alta emana izatea egiaztatu behar da.

Laguntza honek %10ko igoera izan dezake, Donostia Sustapenak ondoren zehazten dituen sektore estrategikoekin lotutako enpresei dagokienez:

- Smart:
 - Ikus-entzunezkoa - Digitala
 - Energia Berriztagarriak eta Eraginkortasun Energetikoa
 - Laguntza soluzioak
- Surfa
- Nekazaritzako elikadura sektorea (Tokiko produktuaren garapena)
- Diseinua, jantzigintza, ekoizpena eta Moda sustapenarekin lotutako zerbitzu profesionalak
- Merkataritza
- Ostalaritza

Igoera hau ez da metagarria, enpresak aipatutako sektore batean baino gehiago lan egin arren.

Enpresa aipatutako sektoreen barruan sailkatzeko ondorioetarako, Donostia Sustapena izango da zehazten duena.

Enpresak, oro har, (1.a artikulua) eta, berrikuntza irizpideetan oinarritutako enpresa berriak (1.b artikulua) sortzeko laguntzak elkarrekin bateragarriak dira.

Aurreko laguntza guztiak, igoerak barne, **gehienez 8.000 eurotan dira, enpresa bakoitzeko.**

Laguntza hauek honako igoerak eduki ahal izango dituzte, ezarritako gehienezko zenbatekoak gainditzen badituzte ere:



1. 500 euroetako igoera, izaera orokorrarekin, ekonomia jarduerarekin lotutako higiezinak alokatzeko (alokairua) gastuen kontzeptuan, merkataritza establezimendua eta/edo publikoa artatzen duten kalean bertako zerbitzuak badira.

Lokala hurrengo auzoetan kokatuz gero: Altza (20.016), Bidebieta (20.017), Amara Berri (20.010 y 20.011), Riberas de Loiola (20.014) , Loiola (20.014), Martutene (20.014 eta 20.115), Intxaurren (20.015) eta Egia (20.012), igoera 2.000 eurokoa izango da.

Igoera hau kalkulatzeko ondorioetarako, ezarritakoa betetzen duten jarduerarekin lotutako higiezin bat baino gehiago izanez gero, enpresaren jarduera nagusia barne hartzen duen higiezina bakarrik hartuko da kontuan.

2. Gehienez, 300 euroetako igoera, haurrentzako haurtzaindegirako edo antzerako eragindako gastuetarako (seme-alabatasuna egiaztatzen duen pertsona ekintzailearen seme-alabak) 0 eta 3 urte artekoa, enpresa plana osatzen, enpresa kudeaketa arloko prestazioa garatze eta/edo enpresa eratu baino lehen, enpresa sorkuntzarekin lotutako bestelako alderdiak garatzen diren denboraz.

Aurreko laguntza guztiak, igoerak barne, **gehienez 10.000 eurotan izango dira, enpresa bakoitzeko.**

Hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak:

Enpresak, oro har, sortzeko (1.a artikulua) eta berrikuntza irizpideetan oinarritutako enpresak sortzeko (1.b artikulua) laguntzek honako diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte:

1. Enpresari datxekion eta lehenengo hilabetetan abian jartzeko eta funtzionatzeko beharrezkoak diren gastuak, eta Ekonomia Jardueren Zergan (EJZ) alta eman aurreko 2 hilabetetan egiten badira, edo errolda deklarazioaren altatik altaren ondorengo 12 hilabetera arte dagokionean, esate baterako:
 - Ekonomia jarduerari dagozkion inbertsioak. Higigarri materiala finantza alokairuaren (leasing) bidez eskuratu bada, interesik gabeko kuotak diruz lagunduko dira.
 - Ekonomia jarduerarekin lotutako higiezinak egokitzeko eta/edo birgaitzeko obrak.
 - Enpresa eratze gastuak, besteak beste: irekitze lizentziak, jarduera lizentziak, eta negozioa abian jartzeko derrigorrezko beste tasak.



donostia UP! san sebastián

- Patenteak, erabilera ereduak, markak eta industria diseinuak izapidetzetik eta lortzetik eratorritako gastuak.
- Gizarte Segurantzako langile autonomoen araubide berezian izandako kotizazioaren ordainketatik eratorritako kuotak.
- Proiektuarekin lotutako komunikazio gastuak. Horien artean, publizitate kanpainak, web orrien diseinua, sare sozialen diseinua, etab. sar daitezke
- Existitzen diren enpresak erostea, horrek garatutako jarduerarekin lortzeko, baldin eta balorazio txosten independentea baldin badago.

Gastu hauek ez dira, inolaz ere, diruz lagunduko:

- Enpresak, ondoren merkaturatu beharreko produktu komertzialak eta/edo lehengaiak erostea.
 - Material suntsikorrak eta bulego materiala erostea.
 - Hornikuntzak.
 - Aholkularitza fiskala, laborala, kontabilitatekoa, juridikoa edo administratiboa, eguneroko liburu eta betebeharrak eta kontabilitatekoak edukitzeari buruzkoak.
 - Soldatak eta ordainsariak.
 - Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainontzeko zeharkako zergak.
2. Ekonomia jarduerarekin lotutako higiezinak alokatzearen gastuak (alokairua), establezimendu komertziala eta/edo publikoa zuzenean artatzen den kalean bertako zerbitzuak badira, eta Ekonomia Jardueren Zergan (EJZ) alta eman aurreko 2 hilabetez burutzen bada ,edo errolda deklarazioaren altatik alta ondorengo 12 hilabetera arte dagokionean.
 3. Hautzaindegiko edo antzeko gastuak, lan eta bitzita familiarra adiskidetzeko neurrien alde egiteko xedea dutenak, enpresa plana burutzen, enpresa prestakuntza garatzen eta/edo enpresa eratu aurretik, enpresaren sorkuntzarekin lotutako bestelako alderdiak garatzen diren denboraz.

6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZEKIN BATERA

Laguntza hauen emakida beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo xede berbererako emandako baliabideekin bateragarria izango da, edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakunderen eskutik emana, batera emandako beste diru-laguntzak araupetzen dituen araudiak, horri



dagokionez, ezar dezakeena alde batera utzi gabe, eta baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badira:

- Oinarri hauetan ezarritako laguntzek errespetatuko dituzte 2013ko abenduaren 18ko Batzordeko 1407/2013 Araudian (EB) ezarritako “minimis” arauak, 2013ko abenduaren 24ko DOUEn argitaratuta, EBeko Funtzionamendu Hitzarmenaren 107 eta 108. Artikuluak minimis laguntzetara aplikatzeari buruzkoa.

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako laguntzaren zenbatekoa ezingo da, inolaz ere, bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino gehiago.

Nolanahi ere, laguntza horiek bateraezinak izango dira Donostiako Sustapenak 2017rako kudeatzen duen Ekin+ programan jasotako laguntzekin.

7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Honakoa izango da laguntzak aurkezteko epea:

- Enpresak, oro har, sortzeko (1.a artikulua) eta berrikuntza irizpideetan oinarritutako enpresa berriak sortzeko laguntzetarako (1.b artikulua), epea bi hilabetekoa izango da, Ekonomia Jardueren Zergan alta ematen den datatik, edo errolda deklarazioaren altatik dagokionean, eta baldin eta 2017ko abenduaren 31 baino lehen bada. Alta data oinarri hauek argitaratu aurrekoa bada, epea bi hilabetekoa izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Modu telematikoan edo presentzian aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Eskabide telematikoak Donostiako Sustapenaren webgunearen bitartez egingo dira (www.fomentosansebastian.eus), bertan ezarritako eskakizunekin bat etorrira.

Eskaera presentzialak Donostiako Sustapeneko Informaziorako Zerbitzu Zentraletan aurkeztuko dira, Erregina Erregentea 8, Victoria Eugenia Antzokia, 20.003 Donostia helbidean, Donostiako Sustapeneko webgunean erreferentzia egiten den arreta publikorako ordutegian.



Eskabide presentzialak paperezko euskarrian aurkeztu beharko dira.

Edozein informazio edo kontsultarako, 943.482800 edo fomentoss@donostia.eus, sorkuntza laguntza erreferentzia gisa adieraziz

Dagokion eskaera inprimakiarekin batera, Oinarri hauetan eskatutako administrazio dokumentazio osoa erantsiko da.

Laguntza ekonomiko hau eskatu nahi duten enpresek edo erakundeek hurrengo dokumentazio orokorra aurkeztu beharko dute:

Dokumentazio orokorra.

- Eskaera orria ("Eskabidea" eranskina).
- Laguntza lortzeko aukera duten pertsona sustatzaileen zerrenda ("Pertsona sustatzaileak" Eranskina).
- Ardurazko Adierazpena ("Ardurazko Adierazpena" eranskina).
- Laguntza eskatzen duen pertsona edo erakundearen banku datuen alta fitxa, dagokion banku entitateak zigilatuta ("Banku-datuak" eranskina).
- Eskatzailearen NAN kopia, pertsona fisikoa bada.
- Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen IFZ kopia eta, hala dagokionean, sinatu duenaren NAN.
- Pertsona juridikoa bada, eraketa eskritura edo dokumentuak, Estatutuak edo fundazio akta. Horietan, jarduera araupetzeko oinarri hartutako neurriak adierazi behar dira, behar bezala inskribatuta, hala dagokionean, dagokion Erregistro Publikoan, dena delako pertsona juridiko motaren arabera. Berezko nortasun juridikorik gabeko Elkarte Zibilei dagokienez, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua barne hartuko da.
- Enpresa eskatzaileak zerga obligazioak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Laguntza eskatu duen enpresak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Ekonomia Jardueren Zergan alta eman izanaren kopia (840 erdua Foru Ogasuna), edo nekazaritza, mendeko abeltzaintza, baso eta arrantza jardueri dagokienez, errolda deklarazioaren altaren kopia (036 erdua Foru Ogasuna)
- Laguntza eskatu duen enpresaren jarduera ekonomiko-historikoen eguneratutako dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundiak igorrita.



donostia UP! san sebastián

- Laguntza eskatzen duenak Donostiako Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duen Udal bereko ziurtagiria edo, halakorik ez badago, Donostia Sustapenak Udaletik bertatik aipatutako informazioa zuzenean lortu ahal izateko berariazko baimena.
- Berrikuntza – irizpide eta hiriari balio erantsiaren balispena (“Berrikuntza – irizpide eta hiriari balio erantsiaren balispena” eranskina)
- Laguntza jasotzeko aukera duten sustatzaile bakoitzaren Autonomoen Araubidean edo araubide baliokidean alta eman izanaren kopia.
- Laguntza jasotzeko aukera duten sustatzaile guztien NAN kopia.
- 5.a artikuluan deskribatzen diren kolektiboetako baten barne daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Laguntza jasotzeko aukera duten pertsona bakoitzak zerga betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa
- Laguntza jasotzeko aukera duten pertsona sustatzaile bakoitzak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa
- Laguntza jasotzeko aukera duten pertsona bakoitzaren jarduera ekonomiko-historikoaren dokumentu eguneratua, Gipuzkoako Foru Aldundiak igorrita
- Eskatzaileak Donostiako Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duen Udal bereko ziurtagiria edo, halakorik ez badago, Donostia Sustapenak Udaletik bertatik aipatutako informazioa zuzenean jasotzeko berariazko baimena.
- Donostia Sustapeneko “Pack Inicio” ikastaroa egin duela egiaztatzen duen tituluaren kopia. Halakorik ez badago, adierazi haren salbuespen eskaera egin dela.
- Haren fakturen eta ordainketa ordainagiriaren kopia, 5. artikuluan adierazitakoari jarraiki. (dokumentu hauek eskaera edo justifikazioa egiterakoan aurkeztu daitezke)
- Gastuen eta ordainketen aitorpena (“Gastuen eta ordainketen aitorpena”eranskina)

Alokairuarengatiko pizgarriak eskatuz gero, zera aurkeztu beharko da:

- Alokairu kontratua, alderdiek zuzen sinatuta.
- Alokairu kontzeptuko fakturen eta ordainketa ordainagiriaren kopia.(dokumentu hauek eskaera edo justifikazioa egiterakoan aurkeztu daitezke).

Bizitza laborala eta familiarra adiskidetzeagatiko pizgarriak eskatuz gero:

- Familia liburua: bertan, egiaztatu behar da adiskidetzeagatiko pizgarriaren xedeko pertsonen seme-alabatasuna. Ordainagiria (faktura) eta eragindako gastuen ordainketa.



Onuradunak bere gain hartuko du erantzukizun aitoren guztiak benetakoak izatearen erantzukizuna eta baita aurkeztutako gainontzeko dokumentazio osoarena ere.

8. ARTIKULUA. ESKAEREN AKATSAK ZUZENTZEA

Eskaera erregistratzerakoan, eskaera inprimakia erantsi beharko da, Oinarri hauetan eskatutako dokumentazioarekin batera.

Dokumentazio guztia errebisatu ondoren, egiaztatzen bada ez direla eskaera horren atal guztiak bete, edo ez dela aurkeztu diruz laguntzeko jardura bakoitzarekin lotutako dokumentazio osoa, pertsona edo erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, hamar asteguneko epean, falta direnak ekartzeko edo dagozkion dokumentuak aurkezteko. Ez badu horrela egiten, aipatutako eskaera kanpo utziko da, izapide gehiagorik gabe, eta ondorioz, horri buruzko ebazpena igorriko da.

Laguntzak emateko edo uko egiteko agindua Donostia Sustapenak horretarako espresuki igorritako ebazpenaren bidez egingo da.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDEAK ETA EBAZPENAK

Eskaerak erregistro hurrenkeraren arabera ebaluatuko eta ebatziko dira, laguntza bakoitzerako baliabideak agortu arte, Oinarri hauen 2. artikuluari jarraiki.

Eskatutako laguntzaren ebazpena igortzeko epea bi hilabetekoa izango da, eskaera erregistratu zen datatik, dokumentazioa zuzentzeko aldiak aipatutako epe horren kanpo utzita. Ez bada laguntza emakidaren ebazpena hitzartutako epearen barruan igortzen, ez da haren emakida gauzatuko.

Enpresak sortzeko laguntzei dagokienez, Donostia Sustapena izango da, eskaera egiterakoan, enpresak emandako informazioa oinarri hartuta, erabakitzen duena enpresak, oro har, sortzeko laguntzei (1.a artikulua) edo berrikuntza irizpideetan oinarritutako enpresa berriak sortzeko laguntzei (1.b artikulua) badagokie.



Hauek izango dira, Donostia Sustapenak, eskaera bat berrikuntza irizpideetan oinarritutako enpresa berriak sortzeko laguntzei (1.b artikulua) badagokie zehazterakoan kontuan hartuko dituen irizpideak

ENPRESA BERRITZAILEAREN BALORAZIOA	50
1. I+G+b eta TEKNOLOGIAREKIN DUEN LOTURA-MAILA	10
Enpresak teknologia garatzen du enpresa barneko bitartekoekin	5
Enpresak patenteen erregistroa, baliagarritasun-modeloak, markak eta diseinu industrialak eskatu eta/edo eskuratu ditu	3
Enpresak ekipamendu edo tresneria zientifikoa/teknologikoa dauka	2
2. ENPRESAREN BERRIKUNTZA-MAILA ETA BIDERAGARRITASUNA	25
Enpresak produktu eta/edo zerbitzu berriak saldu beharra dauka (berritu beharra), bizirauteko eta hazteko	7
Enpresak produktu, zerbitzu edo prozesu berriak garatzen ditu edo nabarmen hobetutakoak, bere sektoreko teknikaren egoerarekin alderatuta, eta berezkoa dute porrot teknologikoa edo industrialia jasateko arriskua	6
Enpresak produktu, zerbitzu edo prozesu berriak garatzen ditu edo nabarmen hobetutakoak, bere sektoreko teknikaren egoerarekin alderatuta, nahiz eta ez izan berez porrot teknologikoa edo industrialia jasateko arriskurik	4
Enpresak inpaktu neurgarria sortzeko aukera justifikatzen du (potenzial komertziala, nazioartekotzea...)	4
Proiektuaren garapen jasagarria: jasangarritasun ekonomiko, sozial eta/edo ingurumen-jasangarritasuneko irizpideetan oinarrituta	4
3. ENPLEGUA SORTZEA	5
Enpresa sortzen den garaian sortzen duen enplegua balio handikoa da	
4. HIRIAREKIN LOTURA	10
Donostia Sustapenak zehazten dituen sektore estrategikoei dagokienez:	



<ul style="list-style-type: none">• Smart:<ul style="list-style-type: none">• Ikus-entzunezkoa - Digitala• Energia Berriztagarriak eta Eraginkortasun Energetikoa• Laguntza soluzioak (Bizi Kalitatea)• Surfa• Nekazaritzako elikadura sektorea (Tokiko produktuaren garapena)• Diseinua, jantzigintza, ekoizpena eta Moda sustapenarekin lotutako zerbitzu profesionalak• Merkataritza• Ostalaritza	
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA GUZTIRA	

Eskabidea berrikuntzako irizpideetan oinarritutako enpresa berriak sortzeko laguntzen kategorian sartuko da (1.b artikulua), baldin eta balorazio horretan gutxienez 25 puntu lortzen baditu. Puntuazio hori lortzen ez badu, enpresak sortzeko laguntzen kategoria orokorrean (1.a artikulua) sartuko da eskabidea.

Donostiako Sustapena gutxieneko puntuazio hori gainditzen ez duten baina 20 puntu edo gehiago lortu duten proiektuak aurkeztu dituzten pertsonekin harremanetan jarri ahal izango da, proiektua ondo ulertu ote den kontrastatzeko.

Ez da beharrezkoa izango balorazio hori eskabidea berrikuntzako irizpideetan oinarritutako enpresa berriak sortzeko laguntzeko kategorian (1.b artikulua) sartzeko, baldin eta enpresa eskatzaileak Donostiako Sustapenak potentzial handiko ekintzailatza bultzatzeko kudeatzen dituen programaren batean (gazteen ekintzailatza berritzailea bultzatzeko Yuzz Programa, negozio-idea berritzaileak aztertzeko Pop Up Commerce Programa) edo hark kudea dezakeen beste programaren batean parte hartu badu.

Donostiako Sustapenaren ebazpen bidez emango da edo ukatuko da laguntza.

Ebazpen horien berri emango zaie pertsona eskatzaileei eta argitaratuko dira onuradunen zerrendak.

Deialdi honi dagozkion notifikazioak bitarteko elektronikoz emango dira, eskabidean emandako helbide elektronikoaren bitartez. Onuradunak Donostiako Sustapenarekin komunikatzeko bidea aldatu ahal izango du. Horretarako, idatzi bat aurkeztu beharko du Donostiako Sustapeneko Informaziorako Zerbitzu Zentraletan, Erregina Erregentea 8, Victoria Eugenia Antzokia, 20.0003



Donostia helbidean, deialdi honi dagozkion notifikazioak posta arruntez jasotzeko eskatuz. Eskaeran adierazitako enpresaren helbidea ez badator notifikazioentzako helbidearekin bat, adierazi egin beharko da zein den.

Emandako ebazpenarekin desadostasunen bat egonez gero, ebazpena ematen denetik hilabete bateko epean alegazioak aurkeztu ahal izango dira, eta Donostiako Sustapenak erabakitzen duena onartuko da eta, hala badagokio, Donostiako Epaitegiek eta Auzitegiek diotena beteko dute alde biek.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Diruz lagun daitezkeen gastutzat onartuko dira, oro har, diruz-lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak eta Oinarri hauetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagun daitezkeen gastu horien erosketa-kostua inola ere ezingo da merkatuko balioa baino handiagoa izan.

Diru-laguntzei buruzko Legearen 31. artikulua aplikatuko zaie diruz lagun daitezkeen gastuei, lege horretarako igorpena egiten baita beren beregi.

Modu honetan justifikatu eta ordainduko dira laguntzak:

Bi alditan **ordainduko dira enpresak sortzeko laguntzak (1.a) eta 1.b) artikulua):**

Lehenengo ordainketa egingo da laguntza ematearen aldeko ebazpena ematen denean; eta eskabidea egin den unean justifikatutako gastuen zenbatekoa hartuko da kontuan, eta onartutako laguntzaren % 50 gehienez emango da.

Bigarren ordainketa egingo da enpresari alta eman (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren data edo, hala dagokionean, zentsu-aitorpenaren altaren data) eta 12 hilabetera, behin azken justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikatutako gainerako kopurua ordainduko da, emandako laguntzaren gehienezko zenbatekoraino.

Azken justifikazioa aurkezteko gehienezko epea izango da hilabete batekoa, behin enpresari alta eman (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren data edo, hala dagokionean, zentsu-aitorpenaren altaren data) eta 12 hilabete igaro ondoren.

Epe horiek betetzen ez badira, ezeztatutzat joko da laguntza.

Laguntza justifikatzeko eta ordaintzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar du onuradunak:



- Gastuen eta Ordainketen Aitorpena, oinarri hauen 5. artikulua araber. ("Gastuen eta ordainketen aitorpena" eranskina).
- Diru-laguntzaren xede diren gastuak egiaztatzeko agiriak eta egindako ordainketen egiaztapenak, beti ere horiek ez badira aurkeztu eskabidea egiterakoan.
- Jarduera ekonomikoaren historikoaren agiria, Ogasunak emandakoa, enpresari alta eman zitzaionetik (Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren data edo, hala dagokionean, zentsu-aitorpenaren altaren data) gutxienez 12 hilabetez jarraitu duela egiaztatzen duena.
- Diru-laguntza jasotzeko eskabidea egin duten pertsona sustatzaile guztien Lan-bizitza, behin enpresari alta eman (Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren data edo, hala dagokionean, zentsu-aitorpenaren altaren data) eta 12 hilabete igaro ondoren egindakoa.
- Diru-laguntza jasotzeko eskabidea egin duten pertsona sustatzaile guztiek eta enpresa eskatzaileak zerga-betebehar guztiak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua, Foru Aldundiak emandakoa.
- Diru-laguntza jasotzeko eskabidea egin duten pertsona sustatzaile guztiek eta enpresa eskatzaileak zerga-betebehar guztiak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emandakoa.
- Enpresak eta sustatzaileetako bakoitzak Donostiako Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria, edo informazio hori Donostiako Sustapenak berak eskatzeko berariazko baimena. ("Pertsona sustatzaileak" Eranskina).
- Helburu berbererako erakunde pribatuei edo publikoei orain arte eskatutako edo jasotako gainerako laguntzen zinpeko deklarazioa. ("Ordainketaren eskaera" eranskina)

Dokumentazioa modu telematikoan edo lekuan bertan aurkeztu beharko da, eta horretarako eskaera egiteko erabilitako bide bera erabili beharko da. Ez da posta elektronikoz aurkeztutako justifikaziorik onartuko.

11. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen onuradunek gain hartuko dituzte LGSko 14. artikulua bildutako betebehar orokorrak. Ondorio horietarako, aipatutako 14. artikulua espresuki aplikatuko da hurrengo betebeharrei dagokienez (era enuntziatiboan eta ez murriztailean):

- a) Ekarpina diruz lagunduriko jarduerak burutzeko erabiltzea.
- b) Eskatutako dokumentazioa aurkeztea, diruz lagundu daitezkeen gastuak ezarritako eran eta aldi justifikatzeko.



- c) Jasotako laguntzen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen lanetarako eskatu baitaitezke eta, nolahi ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epeaz.
- d) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak zenbatzea.
- e) Kontabilitate liburuak zuzen eramatea, horretara derrigortuta dagoenean.
- f) Zergazko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean eramatea.
- g) Donostia Sustapenari edozein inguruabarraren aldaketaren berri ematea, bai subjektiboa eta objektiboa, hura laguntzak emateko kontuan hartu baldin bazen.
- h) Donostia Sustapenak, emandako laguntzekiko bere zereginak burutzeko behar duen informazio guztia ematea.
- i) Donostia Sustapenari jakinaraztea, xede berdinerako, jasotako beste diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso direla.
- j) Donostia Sustapenak, jasotako laguntzarekin lotuta, antolatu ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (Proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzaren jarraipena, etab.).
- k) Donostia Sustapenari laguntzaren xedeko eskaeran aurkezteko baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabarraren berri ematea.
- l) Hala dagokionean, Donostia Sustapenarekin kolaboratzea, burutu ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jardueretan, eta eskatu diezaiokeen informazio eta dokumentazio osoa eskuragarri jartzea.
- m) Laguntzaren xedeko jarduera burutzeko beharrezkoak izan daitezkeen lizentzia eta baimen oro edukitzea.
- n) Oinarri hauetako 3 eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea
- o) Laguntza eragin duten enpresa eta bazkideen alta, gutxienez 12 hilabetez mantentzea enpresaren alta datatik (Ekonomia Jardueren Zergaren alta data, edo errolda deklarazioaren alta data dagokionean), enpresa, arrazoi objektibo eta justifikatuengatik, alde aurretik itxi behar izan dela justifikatzen badute izan ezik.
- p) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikaziorako euskarrietan (webguneak, sare sozialak, e-mail bidalketak, megafonia, etab.), promozio eta hedapenerako materialen edizioa, hizkuntza antolaturiko jardunaldi eta ekitaldietan, etab.

Entitate eskatzaileek Donostiako Udaletxeko Euskara zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango dute testuak itzuli eta zuzentzeko, beti ere zerbitzuaren eskakizun eta baldintzak betetzen baldin badira.



12. ARTIKULUA. DIRU-ITZULTZEA

Onuradunak jasotako ekarpena itzuli beharko du, gehi diruaren interes legala –ekarritako zenbatekoak ordaindu diren unetik-, hurrengo kasuetako batean:

- Oinarri hauetan aurreikusitako zereginen behin eta berriro egindako arau-hauste larria.
- Ekarpeneren xedea Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan ez justifikatzea, eta baita behar ez bezala justifikatzea ere.
- Onuradunaren jardueran egin daitezkeen egiaztapen eta ikuskapen jardueri uko egitea, aitzakia adieraztea, edo ezeztatzea, eta baita ere kontabilitate, erregistro edo dokumentuak gordetzeko betebeharrak ez betetzea, horren ondorioz, ezin direnean jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatzutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak batera eman direla egiaztatu, edozein Administrazioetik edo erakunde publiko zein pribatu, nazional, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundetik eratorrita.
- Jarduera gehiegi finantzatzuz gero, gastatu gabeko edo gehiegi finantzatzutako zenbatekoari dagokionez.

Ekarpena itzuliko du, Donostia Sustapenak, ondoren deskribatutako baldintzetan, Oinarri hauetan ezarritako kasuetako bat eman dela adierazita eta onuradunari igorrita.

Dirua laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean itzuli behar da Donostia Sustapenak, burofaxen bidez, onuradunari jakinarazten dionetik artikuluko honetan aurreikusitako diru-itzultze kausaren bat eman dela.

Aurretik aipatutako dirua itzultzeko kausaren bat emanez gero, era berean, onuradunak galduko du, hala dagokionean, ordaintzeko gelditu litezkeen zenbatekoak jasotzeko eskubidea.

13. ARTIKULUA. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

15/1999 Lege Organikoko 5.1. artikuluan ezartzen denaren arabera, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa (IPDB), Oinarri honetako laguntza arautuak eskatzen dituztenei jakinarazten



zaie, eskabide honen bitartez ematen dituzten eta, behin laguntzak ematen direnean, eskabide horien tramitazio edo/eta kudeaketan errazten dituzten izaera pertsonaleko datuak DONOSTIAKO UDALETXEAREN titulartasuneko den eta DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietateak kudeatzen duen fitxategi batera edo hainbat fitxategira sartuko direla. Alde batetik, enplegu-bilaketarako politika aktibo bat kudeatzeko erabiliko dira, eta, bestalde, DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietatearen zerbitzu eta jarduerak ezagutzera emateko ere bai, eskatzaileak, dagokion eskabidean, hala baimentzen duenetan.

Berariaz kontrakoa adierazten den kasuetan salbu, eskatzen diren datuak beharrezkoak dira eskabideei bide emateko. Izaera pertsonaleko datuen titularrak emandako datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren ardura du.

Eskatzaileak beste pertsona batzuen datu pertsonalak ematen baditu, eskatzaile horrek berak datu horiek emateko pertsona horien baimena jaso izan beharko du.

Datu pertsonalak enplegua eskaintzen duten entitateei eman ahal izango zaizkiela jakinarazi nahi dugu, eta baita, beharrezko denetan, entitate nazional edo/eta europarrei ere bai, kudeaketan DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietatearekin elkarlanean dabiltzanei edo jarduerak finantzatzen dituztenei.

Halaber, eskatutako laguntzak edo zerbitzuak emateak onuradunen identifikazio-datuak eta jasotako laguntzaren zenbatekoa DONOSTIAKO SUSTAPENA SAren webgunean argitaratu ahal izango direla esan dezake, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo, beharrezko suertatuz gero, dagokion aldizkari ofizialean argitaratzearekin batera.

14. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onestea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez ezagutzera emango dira eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean indarrean sartuko dira.

Interesatuak eskaera aurkeztuz gero, Oinarri guztiak onetsiko dituzte.

Erantzukizuna salbuestea.



Onuraduna izango da, laguntzaren xedeko ekintzaren aurretiko edo ondorengo jardueren ondorioz edo ekintza bera garatzearen ondorioz, sortzen diren kalte pertsonalen eta/edo materialen erantzule bakarra, beraz, Donostia Sustapena, aipatutako kontzeptuengatik eragin daitekeen edozein erantzukizunez salbuetsita egongo da.

15. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak Oinarri hauetan bildutako arauen bidez zuzenduko dira eta osagarri moduan, LGSko eta hura garatzen duen Araudiko arauen bidez, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ontzat emana, LGSko Araudia ontzat eman zuena (aurrerantzean RLGS), nahiz eta esklusiboki izan, aipatutako LGSk biltzen dituen edukiak eta bere 20. artikuluan aipatzen den informazio edukiak kudeatzeko printzipioei dagokienez, hori guztia, bertako bigarren paragrafoaren 3.2. artikulua arabera, aipatutako aplikazioa zehazten duena.

Bestalde, aipatutako LGS eta RLGS aplikatuko dira bakarrik Oinarri hauek aipatutako testu legalei heltzen dieten kasuetan bakarrik.

Donostian, 2017ko

Ernesto Gasco
Donostia Sustapeneko, S.A. Lehendakariordea.